

KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiek bezala kostuak edukiko ditugu, baina proiektu mota honekin ez ditugu beste batzuek bezain beste. Beraz, zentzu horretan hasieran ez dugu diru askorik jarri beharko ezta bankuei mailegurik eskatu ere.

Elkartu, aplikazio bat izaterakoan, materiala eta lokala izan daitezken bezalako aspektuetan aurreztu egingo dugu, izan ere, biek Maddi Urbizuren etxetik lan egingo dugu ofizina bat duelako. Bestalde, material aldetik ordenagailuak bakarrik behar ditugunez, gure etxeakoak erabiltzeko asmoa dugu.



Hauek izango dira egin beharreko inbertsioak eta kostu finkoak:

- Gure lagun informatikariarekin hitz egin dugunez, badakigu ziur 50€ ordaindu behar dizkiogula, beraz oraingoz finkatuta dago.
- Aplikazioa Play Storen edukitzeagatik ordaindu beharreko 25€ eta App Storen edukitzeagatik 110€
- Aplikazioa patentatzeagatik 60€ ordaindu behar dira eta guk patentatzea erabaki dugunez, hau beste kostu bat gehiago da, baina hau hasieran bakarrik izango dugun kostua izango da.

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
Informatikaria	50€
Apple Store	110€
Play Store	25€
Patentatzea	60€

Kostu aldagarriak:

- Gutako bakoitzak jarri behar dugun dirua hasieran, hau da, 225€ jartzea bakoitzak. Beraz, hasieran 450€rekin hasiera pentsatzen dugu. Hala ere, gure planetan ez dagoen arazoren bat sortzen bazaigu diru gehiago jarri beharko genuke.
- Hasieran, gure soldatak 500€koa izango da, ondoren, aplikazioa ezagunagoa egin ahala, gehiago izango da, 1500€tara iritsi arte.

Eskala ekonomiak:

Proiektuaren hasieran, ez dugu kostuen murrizketarik egingo, izan ere, aplikazioa berria izango da eta oraindik ez da ezaguna izango. Arrakasta lortzen badugu edo bezeroak baditugu, publizitatean inbertitu duguna aldatzeko asmoa dugu. Hasieran, 200€ inbertituko ditugu eta ondoren gastu hauek murrizten joango gara, hasieran gure enpresa ezagutzera emateko bultzada handiago bat beharko dugu eta.

KOSTU ALDAGARRIAK	PREZIOA
Publizitatea	200€
Guk jarritakoa	450€
Gure soldatak	500€ x2

Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresa gai izan beharko da gastu horiei aurre egiteko. Hasieran, 1895€ko gastuak izango ditugu, baina hasieran 2000€ko diru sarrerak aurreikusten ditugunez, enpresa aurrera ateratzeko gai izango gara. Ondoren, aplikazioa famatua egin ahala 3810€ gastuak izango ditugu dena kontuan hartuta, baina 4000€ko diru sarrerak aurreikusten ditugunez, aurrera jarraitu ahal izango dugu.